Bakaia 'rena

# kardaberaz

KARDABERAZ-BAZKUNA
IKAS TA ZABALDU
"AURRERA - BETI"







# Agur Jaunak

Agur yakintzaleak: Ainitz aldiz aspaldi-danik entzun degu, ainitz aldiz euskerak il egitera beartuak gaudela esan digute. Eliz ama donea etengabe deika daukagu. Euskera berak ere oyuka datokigu: Euskera gure izkuntza zoragarria, liluragarria, berdiñezgabea, ez diot nik; gizon yakintsunak diote: Humbolt'ek, Schuchardt eta Vinson'ek Bonaparte'kin. t. a., aintzak gañera geienak; euskera bere aditz joku atza-retkin; euskera bere itz berritzeko erraztasunarekin.

Gure eria ere, len ittarako lo zegoan eria ere, gaur esnai dago, gaur guri deika dago.

Eriaren berbiztkunde onetan ezin egon gindezke lo apaiz-apaizgaiok. Ziñismenari eutsi nai ba'diogu euskera, euskal gokia degula entzun degu sarri askotan.

Baña, ba-dik, irakurle, beste galdera bat ere badagike: "Itxoŕ da aurtxuei aintzeste ildu zoitzen dien Olentzaro dalako ori?

Folk-lore'n azaltzen danez, Olentzaro aspaldiko gureetako jaungoikoa degu. Negu-aldiko jaungoikoa alegia, San Juan uda-aldikua bezela. Indo-Europeotaŕen aldikua bera. Garai artan eguzkia, ilaŕgia, eguna, gaba, eta beste olako asko zituzten jaungoikotzat. Garai artakua da Olentzaro ere. Orregatik ibili oi da etxeko-andŕia entoŕ-bila, Olentzaro egun auŕez. San Juan'etan edaian egin oi dan bezela, egun orten etxe barŕuan su egiteko. Aldi artan jaungoikotzat bai zuten ura ere.

Baña aŕigaŕia da, nola beretu zaigun gauŕ antziñako jaungoikoa. Gure Olentzaro, beste olentzaro askoren antzeo, jan-edanketan du bere atsegiñik biziena. Beti jan-edanean. Entzun:

Olentzaro iñondik
Ezin degu ase:
Osorik jan dizkigu
Amaiŕ txeŕi gazte.

Olentzaro buru aundi
Entendimentuz jantzia
Bart arratsian edan omen digu
Amar arruako zagiya.

Ai, urde tripaundia

Baña baton-gunez gero, egiazko Jaungoikoa jaio dala, Olentzarok ere jakiñ du. Geroztik ez da bera Olentzaro ala, bere jan-edanetako joeraiak aldare auŕean utzita egiazko Jaungoikoa aitoŕtuaz, Belen'go Aurtxoaren berŕi ematera eŕita jatzi zaigu:

Olentzaro juan zaigu
Mendira lanera
Intenzioarekin
Ikatz egitera.

Aditu duanean
Jesus jayo dala
Lasterka etoŕi da
Albiste ematera


NI-NEU